

infraganti CASILDA MARAÑON, MOZORROEN DAMA

Casilda Marañonek mozorro ugari diseinatu ditu pentsaezinak ziruditen elementuak erabiliz eta hainbat sari ere jaso ditu. Zaborra apaingarri bilakatzea arte bat da, are gehiago goi-mailako joskintza gogora ekartzen duten mozorroak sortzen badira. Lanari arima jartzen dio. Onenean egongo litzateke injustiziak bihotza apurtu ez balio.



Casilda Marañon, mozorroen argazki bilduma ikusten. Marisol RAMÍREZ | FOKU

Urte asko igaro dira jada Casilda Marañonek lehendabiziko mozorro hura diseinatu zuenetik. Zaila da zehaztea gaurdaino zenbat izan diren. Kreazio ugari dira, askotarikoak, bakoitza bere berezitasunekin. Hala ere, gehienek ezaugarri batzuk dituzte komunean, birziklatzera bota ohi diren elementuekin eginda daude eta begi bistakoa da goi-mailako joskintza gogora ekartzen dutela. Ondo josten ez dakien batek nekez egin ditzake jantzion egiturak, formak, burukoak, kapelak... Baina Casildak badaki josten, eta, gainera, gustuko duela ere onartzen du.

Casildaren mozorroek badute beste ezaugarri nagusi bat, bakoitzak istorio bat du atzean: une zehatz batean sortutako mozorroa izan zen eta kontakizun hori jantziari itsatsita geratu da. Marañonek dioenez, hamarkadetan zehar «oroitzapen ugari» gorde ditu, «gozoak». Dionez, «ilusio handiko momentuak» bizi izan ditu joskintzari esker.

Urte batzuetan hiru mozorro egitera ere heldu da, baina kopuruak ez du kezkatzen, ezta jasotako sari ugariek ere. Eta badira batzuk, bai bizileku duen Amurrion, bai inguruko herrietan, bai Bilbon bertan ere. Helburua ez da inoiz mozorroak eta sariak pilatzea izan, baina hor daude.

Casildak azaltzen duenez, benetako gozamina aurkitzen du irudimenari eragiten, urtero mozorro ezberdin bat asmatzeko prozesuan, apurka-apurka kreazio berri bat sortzen, hari forma ematen... Eta, gainera, «gauzak egitea» berarentzat «terapia» baten modukoa da. «Mozorroa egiten disfruta-

tzen dut. Jantzi eta esaten dut: 'irabazi ala ez polita da eta ki-to'», kontatu du amurriarrak.

Casildak zehaztu duenez, Arabako Errioxako Kripan herrian jaio zen, eta, jaiolekua ahazten ez badu ere, txikitatik bizi da Amurrion, eta, hortaz, amurriarra sentitzen da. Amurrion bertan ezkondu zen eta bi seme-alaba ditu, eta, kontatzen duenez, saltsa askotan laguntzen du.

Egun Gure Esku Dago herri ekimenean aritzen da, baina 30 urte daramatza Casildak Apdema Adimen Ezintasuna duten Pertsonen aldeko Arabako Elkartearen. Aisialdirako talde bat antolatzea pentsatu zuten eta Eugenio Pinedo lankideak boluntario gisa aritzeko eskatu zion, kontatu duenez. Baiezko hura eman izanaz ez da inoiz damutu. Casildaren iritziz, Apdemarekiko hurbiltasunak eta elkartearen kideekin izandako bizipenek «sentsibiltate berezi bat» utzi dute etxekoan artean. Gainera, Apdemako neska mutilak bere «fan onenak» direla nabarmentzen du harro Casildak.

Mozorroak egiteko, material batzuk behin baino gehiago erabili izan ditu, «baina modeloak beti dira berriak». Casildak ez dio bere abileziari garrantzi handiegirik ematen, «honetarako jaioa» dela onartu arren. Hori bai, atzamarretan dituen maskurrak erakusten ditu. Ez da erraza zenbait elementu manipulatzeko. Plastikozko ontziak moztea, forma ematea... zaila da, lan handia eskatzen du, «baina ona izan naiz beti eskulaneekin eta gustuko dut jostea».

ZAURIAK EGITERAINO

Askotan mozorroak janztea bera ere ez dela batere erraza onartu du Casildak, batzuek pi-



su handia dute, arrastaka eraman behar den dandarra dute askotan, burukoak ere bere pisua dauka, bolumena... «eta ondo jantzita eraman behar da». Irribarretsu komentatu du zauriak ere egin izan dituela mozorroa janzteko trantze horretan. Casildak berak jantzi izan ditu mozorro batzuk, baina ez berak bakarrik, aparteko modelo baitu etxean bertan; azaldu duenez, «planta doto-rea» ematen die amaren krea- zioei Judith alabak.

ARTO HOSTOAK

Artoaren hosto marroixka sikuekin egindako mozorro eder bat erakutsi digu Casildak, eta urrak eta bestelako fruitu lehorrak tratatzeko hartutako lanak kontatu dizkigu. Gogoratu du mozorroarekin desfilatatu zuten egunean baserritar batzuei jantzia egiteko «ortua izorratuta» utzi behar izango zutela esaten entzun ziela.

Plastikozko ur botila, edalontzi eta mahai-tresnak, latak, osasun langileen erabili eta botatzeko maskara eta mantalak, laranjen sareak, ka-

fe kapsulak, arto hostoak, fruitu lehorrak, jogurt botilatxoak, ziazerba hostoak... erabili izan ditu mozorroak egiteko. Elementuok etxean bertan pilatzen ditu, gauzez betetako poltsak erakutsi bitartean azaldu digunez. Materialok biltzeko orduan laguntza handia izan du beti bai etxean, bai auzokideen partetik... «Diogenes sindromeak jota nagoela ematen du batzuetan!», kontatu du solasaldiari irribarre bat ipiniz.

Etxeko ateak berehala zabal-tzen dituen moduan, zabalik dauka Casildak mozorroak gordetzen dituen etxeko sotoa ere ikusi nahi duenarentzat. Nabarmentzen duenez, mozo-

Laranjen sareak, latak, CDak, osasun langileen maskara eta mantalak, kafe kapsulak... erabili izan ditu mozorroak egiteko. Inoiz ere ez du errepikatzen jantzi baten diseinua

Casildak jarraitzaile asko baditu ere, Apdema Adimen Ezintasuna duten Pertsonen aldeko Arabako Elkarteko neska-mutikoak nabarmentzen ditu: «Nire fan onenak dira»

Lerroon gainean, Casildak egindako azken mozorroaren eta Alfredo Remirez semearen argazkiak. Ondoa, kontserbatzen dituen zenbait mozorro. Marisol RAMIREZ | FOKU



roak janzteko dira, ez gordeta egoteko, eta, horregatik, behin baino gehiagotan utzi dizkie hurbilekoei.

Mozorroak sortzen gozatu izan du beti, baina begi bistakoa da krea- zio bakoitza azaltzen ere disfrutatzen duela, mozorroak eta jantzi zituzte- nen irudiak erakusten, bakoitzak atzean daukan historia azaltzen. Casildaren bizitzaren zati handi bat konta daiteke argazkioi begira, eta arabarrak ez ditu sentimenduak ezku- tzen.

SEMEAREN ARGAZKI KUTUNA

Argazki bilduma potoloan, plastikozko edalontziekin egindako mozorro bat dar- man haur bat ageri da. Aspal- diko krea- zio hori Alfredo Re- mirez Casildaren semeak jantzi zuen ikastolako jai bate- an. 1990. urtea zen, eta mozo- rroa ez zen batere eroso 7 ur- teko haur batentzat. «Alfredok behin eta berriro kentzeko es- katzen zidan, eta nik apur bat gehiago aguantatzeko esaten nion!», kontatu du amurria- rrak, argazki bildumari begira.

Argazkiz betetako zorro po- toloak irudi ederrak pilatzen ditu. Orriak pasatu eta bakoit- zarekin oroitzapenak, anek- dotak, gogoetak... botatzen di- tu, baina, mahai gainean, sarri laztantzen duen argazki handi bat dauka Casildak, Alfredo se- mearena.

Ez da memoria txarrekoa Casilda Marañon eta solasaldi- rako ere tonu gozoko pertsona da, txispa handikoa, frankoa... Kontatzen duenagatik, nabari da martxa handiko emaku- mea izan dela. Hala ere, onar- tzen du ez dagoela bere unerik onenean. Sentimenduak pila- tzen zaizkio, eta atzean ez da- go arrazoi bakar bat, bizipen ugari eta kontrajarriak baizik.

Alfredo semea, @erreharria Twitter sare sozialean, Daro- can du preso. Egin dituen “de- lituak”, honakoak: txio bidez presoan urrunketa salatzea eta 2005ean Amurrioko jaietan euskal preso baten irudia era- kuste. Elkartasun adierazpen horiek eraman dute kartzela- ra, eta, uneotan, senideek 800 kilometro egin behar dituzte bisitako.



Semeari askatasuna kendu dion bidegabekeriaren aurreko ezintasuna, kartzelak eta urrunketak sorrarazten duten kezka, ingurukoen eta ez hain ezagunen partetik jaso duen elkartasuna... gehiegi dira emozioak une batzuetan, baina begiak dir-dir jarri dizkionten negar anpuluak eskuarekin garbitu eta argazki bildumara itzuli da kontakizunarekin jarraitzeko. Nabarmendu duenez, sekulako maitasuna eta laguntza izan du, eta horren zati handi bat itzultzen dio Alfredori asteroko bere gutunean. Bidali behar dion etxeko lorea erakutsi digu, baita gutun-azalean bidali behar dizkion egunkari zatiak ere.

ASKATASUN ESKEA MOZORRO BIDEZ

Mahai gainean dagoen beste argazki bat hartu du segidan. Mozorro gorri bat da, bere pamera eta guzti, eta plastikozko mahai-tresna zuriekin apainduta dago. "Julen libre" lelodun eranskailua dauka bularean, eta "Alfreedom" dioen lelodun banderatzok osatzen du jantzia. Egin duen azken

mozorroa da deskribatu berri duguna. Lehen pertsonan bizi izan duena azaltzeko egin du Casildak Alfredo semearen eta Julen herrikidearen aurkako prozesuak salatzen.

Ez da azken hori mezu zehatz bat zabaltzeko Casildak egindako mozerro bakarra. Hala, 1998an "Egin" egunkaria itxi zutenean, ez zuen birritan pentsatu: egunkariaren lehen orrialdeekin mozerro bat egin eta "Egin kalean" izena jarri zion. «'Egin' itxi zuten urtean ez nintzen mozerro lehiaketara aurkeztu. Urte hartan aldarrikatzera irten nintzen kalera», gogoratu du.

Beste askotan inprobisazioa izan du bidelagun mozerro-

Goian, Casilda Marañon latekin egindako mozerro bat erakusten. Ondoan, altxor moduan gordetzen dituen argazkiak, eta, azpian, Alfredo eta Julenen askatasuna aldarrikatzeko egindako mozerroa. Marisol RAMIREZ | FOKU

Aldarrikapen kutsuko mozerroak ere egin izan ditu, azkena Alfredo Remirez semearen eta Julen Ibarrola Amurrioko gaztearen askatasuna eskatuz. «Egin kalean» izenekoa ere egin zuen

Amurriarrak kontatu du «izugarri gozatu» duela mozerroak egiten. Oroitzapen eta anekdota ugari gordetzen ditu bihotzean, mozerro bakoitzak atzean istorio bat baitu



tzeko orduan. Mozorro horiek ere ez ditu ahazteko. «Sortzailatzat dut nire burua», adierazi du Casildak, eta kontatu du nola behin mozerrotzeko ganbarara jo eta arropa zaharrekintz ziren. Modu batera ala bestera, mozerrotzea bada eskura daukazunarekin itxura aldatzea, eta hor dago «magia» neurri handi batean. Horregatik, kontatu digu behin antzerki talde batentzako jantziak egiteko eskaera jaso zuela eta ez zuela onartu. Ideia ez zen berez txarra baina zortzi jantzi egin behar izateak xarma kentzen zion egiten duen

horri; mozerro bat egiterako orduan, Casildak ez du ez mugarik ez bete beharrik, eta horretan aurkitzen du hainbeste asetzen duen hori.

Buruan badu zerbait daterren urtera begira, baina oraingo ez du pistarik eman nahi. Ume mozerro bat egin nahi du, eta, lan horretan, irudimenak ez du etenik. Bidean, uneotan zaborra den hori apaingarri bilaka daiteke. Bihotzaren zati bat etxean du, modelo, eta, bestea, Darocan, urrunegi baina hurbil. •

Nerea GOTI